



**UN
ETXEA**

ASOCIACIÓN
DEL PAÍS VASCO
PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO
EUSKAL HERRIKO
ELKARTEA



JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZA IKASKUNTZA- EGOEREN BIDEZ

Irakasleentzako gida teoriko-praktikoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



ASOCIACIÓN
DEL PAÍS VASCO
PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO
EUSKAL HERRIKO
ELKARTEA

© UN Etxea - UNESCO Sustatzeko Euskal Herriko elkarte

Egileak: Andrea Antúnez (@tu_compi_de_sociales)
Eva Quiroga (UN Etxea)

UN Etxea - UNESCO Sustatzeko Euskal Herriko Elkarte
Isozaki Atea - Bizikidetasun plaza, Uribitarte pasealekua 12,
2. lokala, Bilbo

Tel.: +34 94 427 64 32

Kontaktua: info@unetxea.org

www.unetxea.org

Itzulpena: Bakun S.L.

Ilustrazioak: © Yolanda Mosquera

Diseinua: Binari Comunicación

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntza du material honek.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



ANDREA ANTÚNEZ

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaslea da eta Hezkuntza Zentroen Zuzendaritza Masterra du. “Dekretu Berria teoriatik praktikara” eta “Nuevos Decretos de educación de la teoría a la práctica” liburuak idatzi ditu, eta sare sozialetan dibulgetzailea da.

Honako kanal hauetan:

@tu_compi_de_sociales / @euskal.irakasle.taldea

EVA QUIROGA

UN Etxea - UNESCO Sustatzeko Euskal Herriko Elkar-tearen Hezkuntza-programako teknikaria 2020tik Gizarte Hezkuntzan graduatua da, gizarteratze-espezialitatean eta Oinarrizko Eskubideak eta Botere Publikoak masterra du.

UN Etxearen sare sozialak:

@UNetxea

AURKIBIDEA

1. **Sarrera**
2. **Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda Hezkuntzan**
3. **Hezkuntza-paradigma berria: XXI. mendeko hezkuntzaren erronkak**
4. **Ikaskuntza-egoerak, erronka sozialak, kulturalak, ingurumenekoak eta ekonomikoak lantzeko tresna gisa**
5. **“Etorkizunak berrirudikatzen: aldaketarako hezkuntza-esperientziak”. Garapen jasagarria ikaskuntza-egoeren bidez lantzeko proposamenak**
 - 5.1 Programatzen hasten
 - 5.2 Curriculumaren garapena
 - 5.3. Jardueren sekuentzia
6. **Erreferentzizko dokumentuak eta eranskinak**
 - I. **eranskina** I. txantiloia - Jardueren sekuentzia
 - II. **eranskina** II. txantiloia - Ebaluazioa

 Bideo-tutoriala



1. SARRERA

UN Etxea - UNESCO Sustatzeko Euskal Herriko Elkarteak, Andrea Antúnezekin elkarlanean, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzarekin, material didaktiko berri hau aurkeztu du gida teoriko-praktiko gisa. Material honekin irakasleei eta hezkuntzako profesionalei lagundu nahi zaie lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleekin garapen jasangarria lantzeko, ikaskuntza kritiko eta kontzienterako metodologia eta metodo berrien bidez.

Argitalpen honetan, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren (GJH) nazioarteko esparrurako lehen hurbilketa teorikoa aurkituko dugu, bai eta hezkuntzaren egungo erronkak ere, maila globalean, eta bigarren atala, berriz, praktikoagoa da, ikaskuntza-egoera berrien bidez ikasgelan garapen jasangarria lantzeko proposamenekin.

Gida honen bidez, tresna bat eman nahi diegu irakasleei eta hezkuntzako profesionalei, ikasgelan eta tokian tokiko esparruan lantzeko garapenaren dimentsio sozialak, ingurumeneoak, kulturalak eta ekonomikoak, eta Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeari buruzko 2023ko 30eko 77/2023 Dekretu berriaren kompetentzia-ikaskuntzarekin lotzeko.



GARAPEN
JASANGARRIRAKO
2030 AGENDA
HEZKUNTZAN

2.



2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen, pertsonen, planetaren, oparotasunaren, bakearen eta munduko aliantzen aldeko ekintza-plana, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko.

Garapenaren dimentsioen (soziala, kulturala, ingurumenekoa eta ekonomikoa) integrazio orekatu gisa planteatzen da garapen jasangarria, eta arlo bateko ekintzak beste arloetako emaitzei eragingo diela onartuta. GJHen helburua da pertsona guztientzako bizitza jasangarria, baketsua, oparoa eta bidezkoa bermatzea, bai gaur egun, bai etorkizunean.

Nazioarteko hitzarmen horrek hiru ezaugarri bereziki garrantzitsuak ditu planeta eraldatzeko: helburu bakoitzaren zatiezintasuna edo elkarren arteko erlazioa, unibertsaltasuna erantzukizun komun baina bereziki printzipiopean eta "inor atzean ez uztea" leloa edo talde kalteuetara iristeko beharra lehentasun gisa.

HONAKO HAUEK DIRA 2030 AGENDAREN LEHENTASUNEZKO 5 ESPARRUAK:

Pertsonak (people): pobrezia eta gosea desagertzea modu guztietan eta pertsona guztien duintasuna eta berdintasuna bermatzea.

Planeta (planet): gure planetako baliabide naturalak babestea eta klima-aldaketari aurre egitea, etorkizuneko belaunaldientzako ingurumen duina bermatzeko.

Oparotasuna (prosperity): pertsona guztiek naturarekin harmonian bizi oparoa eta osoa izan dezaten ziurtatzea.

Bakea (peace): bakea, justizia eta gizarte inklusiboak sustatzea.

Aliantzak (partnership): 2030 Agenda ezartzea aliantza globalen bidez.

Sormena, ezagutzak, teknologia eta finantza-baliabideak, bai eta gizartearen zati guztiak ere, beharrezkoak dira helburu horiek lortzeko: gobernuak, erakunde publikoak, sektore pribatua, gizarte zibila, hezkuntza-komunitatea eta abar. Beharrezkoa da maila desberdinetan parte hartzea eta inplikatzeko, eta horregatik da hain garrantzitsua GJHak tokiko testuinguruetatik lantzea.

Zehazki, hezkuntzari buruzko 4. GJHaren eta haren **4.7 helmugaren** bidez jasoa dago kalitatezko **hezkuntza inklusiboaren eta ekitatiboaren** beharra, jasangarritasunaren arloan aurrera egingo badugu.

"Hemendik 2030era, bermatzea ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko behar diren ezagutza teoriko eta praktikoak izango dituztela, besteak beste, honako hauen bidez: garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarriak izateko hezkuntza, giza eskubideak, genero-berdintasuna, bake-kultura eta indarkeriarik eza sustatzea, munduko herritartasuna, eta kultura-aniztasuna eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena baloratzea." (2030 Agendaren 4.7. helmuga).

Hau da, **Garapen Jasangarrirako Hezkuntza (GJH)** beharrezkoa da jasangarritasunean funtsezkoak diren zeharkako konpetentziak lortzeko, bai eta ikaskuntza-helburu kognitiboak, sozioemotionalak eta jokabidezkoak lortzeko ere.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Iturria: UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra.

» **Jasangarritasunerako funtsezko kompetentziak**

- **Pentsamendu sistemikorako kompetentzia:** harremanak ezagutzeko eta ulertzeko trebetasunak; sistema konplexuak aztertzeko; sistemak nola dauden hausnartzeko domeinu eta eskala desberdinetan integartzeko; eta ziurgabetasuna kudeatzeko.
- **Aurreratzeko kompetentzia:** etorkizuneko agertokiak -posiblea, probablea eta desiragarria- ulertzeko eta ebaluatzeko gaitasunak; etorkizuneko ikuspegiak sortzeko; zuhertasun printzipioa aplikatzeko; ekintzen ondorioak ebaluatzeko; eta arriskuak eta aldaketak kudeatzeko.
- **Araugintzarako kompetentzia:** gure ekintzen azpian dauden arau eta balioak ulertzeko eta hausnartzeko trebetasunak; eta jasangarritasunaren balioak, printzipioak, helburuak eta xedeak negoziatzeko, interes-gatazken, elkarrekiko kontzesioen, zalantzazko ezagutzaren eta kontraesanen testuinguruan.
- **Kompetentzia estrategikoa:** jasangarritasunerako tokiko zein harantzago ekintza berritzaileak kolektiboki garatzeko eta ezartzeko trebetasunak.
- **Elkarlanerako kompetentzia:** besteengandik ikasteko trebetasunak; besteen beharrak, ikuspegiak eta ekintzak ulertzeko eta errespetatzeko (enpatia); ulertzeko, identifikatzeko eta besteekiko sentikorak izateko (lidergo enpatikoa); gaztazkak taldean lantzeko; eta arazoak lankidetzan eta parte-hartuz konpontzeko.
- **Pentsamendu kritikorako kompetentzia:** arauak, praktikak eta iritziak zalantzan jartzeko gaitasuna; norberaren balioei, pertzepzioei eta ekintzei buruz hausnartzeko; eta jasangarritasunaren diskurtsoan jarrera bat hartzeko.
- **Autokontzientziarako kompetentzia:** bakoitzak tokiko komunitatean eta gizarte globalean daukan rolari buruz hausnartzeko gaitasuna; norberak egiten dituen ekintzak etengabe ebaluatzeko eta bultzatzeko; eta sentimendu eta desio pertsonal kudeatzeko.
- **Arazoak konpontzeko kompetentzia osoa:** jasangarritasun arazo konplexuei arazoak konpontzeko esparru desberdinak aplikatzeko trebetasun orokorra, eta garapen jasangarria sustatuko duten konponbide ekitatiboko aukerak sortzea, lehen aipatutako kompetentziak integratuz.

Iturria: UNESCO, 2017. Garapen Jasangarrirako Helburuetarako Hezkuntza.

Era berean, 4.7 xedea lortzeko, irakasleei beharrezkoak diren gaitasunak ematea beharrezkoa da; izan ere, [4.7. Mugimenduak \(4punto7.org\)](#), – [Garapen Jasangarrirako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea \(GJHGH\)](#) Espainiako Hezkuntza Sistematan txostenak agerian uzten duenez, Garapen Hezkuntzaren eta Herritartasun Globalaren edukiek, ikuspegiak eta metodologiak ez dute ia presentziarik irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza-programetan.

UNESCOren “Reimajinar Juntos Nuestros Futuros” txostenean, milioi bat pertsona inguruk parte hartu duten kontsuluten mundu mailako prozesu baten bidez egina, mundu osoko gobernu, erakunde, erakunde eta herritarrei hezkuntza kontratu berri bat lortzeko eskatzen zaie, etorkizun baketsu, bidezko eta iraunkor globalak eratzeko. Funtsezko printzipio gidari gisa, Kalitateko Hezkuntzaz gain (4. GJH), Hezkuntza Ondasun Komun gisa planteatzen du, hezkuntza proiektu publiko eta komunitario gisa indartuz, eta zentzu horretan parte-hartzea funtsezkoa dela ulertuz.

Berlingo Adierazpena 2021eko maiatzean egin zen, UNESCOren Munduko Konferentziaren ondoren, eta GJHGHren aldeko apustua jasotzen du. Herrialde sinatzaileek, tartean Espainiak, hezkuntza-sistemen oinarriko elementua izateko konpromisoa hartu dute, hezkuntza-maila guztietan integratuz eta irakaskuntza-trebakuntzan inbertituz, behar bezala garatzeko.

Estatu mailan, Espainiako hezkuntza-legearen (LOMLOE) aldaketa berriak zeharkako ardatz gisa hartzen du garapen jasangarria. Araudi berriak esplizituki aipatzen ditu Garapen Jasangarrirako Hezkuntza eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza, eta aitortzen du garrantzitsua dela garapen jasangarria 2030 Agendan (LOMLOE 3/2020) ezarritakoaren arabera bultzatzea.

LOMLOE legearen hitzaurrean argi eta garbi nabari da eraldaketaren ikuspegia. Gure hezkuntzaren oinarriak finkatzen dituen dokumentu horrek egungo gizartean ditugun desafio eta erronkei erantzuna ematean jartzen du arreta. 1. artikuluan **trantsizio ekologikoaz** hitz egiten digu, eta horretarako 110. artikulurekin lotu behar dugu: **irisgarritasuna, jasangarritasuna eta ingurunearekiko harremanak**. Bide hori eraikitzeko funtsezkoa da pertsona kontziente eta enpatikoak izatea eta, aldi berean, pentsamendu kritikoa garatzea.

Lege berri horren teoria eta oinarriak ikasgeletan sartzeko bidean, 157/2022 Errege Dekretuaren bosgarren printzipio pedagogikoa dugu, honako hau aipatzen baitu: *“Era berean, arlo guztietatik sustatuko dira gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, bakerako hezkuntza, kontsumo arduratsurako eta garapen jasangarrirako hezkuntza eta osasunerako hezkuntza, sexuala barne.”*

Funtsezkoa da legeria kontuan hartzea, eduki eta kontzeptu horiek ikasgelan egunero zeharka lantzeko beharra justifikatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, dagoeneko eskuragarri ditugu EHAAn argitaratutako dekretu berriak, ondorengo lana garatzeko. Azpimarratzekoa da Oinarrizko Hezkuntzari dagokiona ([LH eta DBH](#)). [77/2023 DEKRETUA](#), maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.



Hezkuntzarako kontratu sozial berriak sendo errotuta egon behar du giza eskubideekiko konpromisoan

(UNESCO, 2021 Gure etorkizunak elkarrekin berrirudikatu).



Curriculum berri honen printzipioak argiak dira eta Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren nazioarteko esparruaren eskutik doaz:

- > Ekitatea eta bikaintasuna.
- > Euskara ardatz gisa eta eleaniztasuna helburu gisa.
- > Haurren eta nerabeen eskubideak.
- > Hezkuntza inklusiboa eta ikaskuntzarako diseinu unibertsala.
- > Hezkidetzeta.
- > Hezkuntza digitala.
- > Garapen Jasangarrirako Helburuak, 2030 Agenda.
- > Hezkuntza pertsonalizatua, konpetentzian oinarritua.

Ardatz eta printzipio horiek funtsezkoak izango dira, lurralde mailan, bide berriak eraikitzeko eta hezkuntzarako etorkizun berriak berrirudikatzeko. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak duela urte batzuetatik eskaintzen ditu [dokumentuak, protokoloak eta planak](#), ikasleen ekitate eta bikaintasun akademikoaren alde egiten dutenak. Dokumentu horiek abiapuntu gisa erabil daitezke garapen jasangarriaren inguruan ikuspegi inklusibotik lan egiten jarraitzeko.



Garrantzitsua da azpimarratzea hezkuntza inklusiboaz eta ikasgelan aniztasunari arreta emateaz hitz egiten dugunean, ikasteko zailtasunez ez ezik, hezkidetzaz eta haurren eskubideez eta giza eskubideez ere ari garela.

Gure autonomia-erkidegoan gai honi buruz egin diren dokumentu garrantzitsuenen artean, honako hauek nabarmenduko ditugu, aurrera egiten jarraitu ahal izateko baliabideak baitira:

- > [Eskola Inklusiboa garatzeko esparru-plana \(2019-2022\)](#)
- > [BIZIKASI elkarbizitza positiborako](#)

Azken batean, aipatutako guztia ikasgelara eramateko, baliabide eta estrategia nabariak behar ditugu. Horregatik, arau-esparru berrietan, ikaskuntza-egoerak proposatzen dira konpetentzia-hezkuntza sustatzeko eta XXI. mendeko erronkei erantzunak emateko tresna gisa, ikasleen hurbileneko errealitatearekin lotutako egoera-arazo bidez, eta betiere azken zeregin bat lortzeko, bizitzara eramatea.

HEZKUNTZA-
PARADIGMA
BERRIA:

XXI. MENDEKO
HEZKUNTZAREN
ERRONKAK

3



Gure munduak, gaur egun, aurrekaririk gabeko erronkei egin behar die aurre: klima-aldaketari, gorrotoan oinarritutako ideologia bortitzei, biodibertsitatearen galera masiboari, gatazka berriei eta munduko pandemiari lotutako arriskuei, besteak beste.

Hezkuntza-sistemak birbideratu egin behar dira, planetaren eta pertsonen alde lan egiteko beharrezkoak diren ezagutzak, balioak eta gaitasunak emateko ikasleei, mundu-komunitate bateko herritar arduratsuen parte diren aldetik. Dinamika berriek paradigma aldatzera behartu dute, ikasleen beharrei erantzuteko eta gizarte jasangarriari eta baketsuak eratzeko modurik onena birplanteatzean.

Aniztasunak, sormena, pentsamendu kritikoa eta ikaskuntza sozioemotionala sustatzea funtsezko alderdi bihurtu da gaur egungo arazoei erantzuteko, elkarren artean oso lotuak baitaude, eta ikasleak prestatzeko azkar eboluzionatzen ari diren testuinguru, aukera eta arazoetara egokitu daitezten. Orain, sinergiak sustatzeko eta kulturaren eta hezkuntzaren esparruen artean lankidetzak estatzeko beharra, UNESCOren agintaldiko funtsezko oinarrietako bi, lehen mailara igaro da gizarte inklusiboagoak, erresilienteagoak eta malguagoak sustatzeko ezinbesteko urrats gisa (UNESCO, Kultura eta Hezkuntza).

Horren harira, nabarmendu behar da hezkuntza artistiko eta kulturala hezkuntzarako eta parte-hartze kulturalerako giza eskubidearen defentsan oinarritzen dela, gizabanakoaren garapen osoa ekarriko duen hezkuntza integralaren funtsezko osagai diren aldetik.

Hezkuntza artistiko eta kulturalak norbanakoaren gaitasunen garapena sustatzen du, parte-hartze aktiboa proposatzen baitu sormena eta adimen emozionala bultzatzen dituzten esperientzietan, prozesuetan eta garapen artistikoetan, eta hausnartzeko gaitasuna, autonomia-zentzua eta pentsamendu-askatasuna ematen dituen "iparrorratz" moralak baita. Gainera, arteak kulturaren adierazpen dira, bai eta ezagutza-komunikaziorako bitarteko ere, eta erakusten dute adierazpen artistiko eta praktika kultural berdingabeak dituela gizarte bakoitzak (Aequae Fundazioa).

Era berean, berriro ere aipatuz 2030 Agendaren 4.7 helmuga, kultura-aniztasunaren balorazioa eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena funtsezko gakoak dira hezkuntza eraldatzailea lortzeko, pertsonak eraldatzeko gai izango dena eta, aldi berean, pertsonak gizarteak eraldatu ahal izateko, etorkizun hobea eraikitzeko.

XXI. MENDEKO ERRONKAK: XXI. MENDEKO HEZKUNTZA

(3/2020 LOMLOE)



Ikasle guztien kompetentzia-maila handitzea



Krisi-garaietan galdutako ekitatea berreskuratzea



Lanbide-heziketa modernizatzea



Eskola-porrota murriztea



Irakasleen prestakuntza profesionalizatzea



0-3 urtekoentzako hezkuntza-proposamena hobetzea



Bigarren Hezkuntza malgutzea: pertsonalizazioa



STEM kompetentzia handitzea

(Science Technology Engineering and Maths) ingeleseko sigla, (bereziki nesken artean)



Gizalegezko balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea




Hezkuntzako inbertsioa handitzea

XXI. mendeko erronka horietatik sortu dira gaur egun hezkuntzaren gako berriak direnak. Bestela esanda, EAEko curriculum berriaren ardatz nagusiak definitu dira. Gaur egun, erronka esanguratsuenek konpetentzia-hezkuntza sustatzen dute, eta funtsezkoak dira gure ikasleen garapen integralerako. Honako hauek dira:

- > Ebaluazio hezigarria eta hezitzailea bultzatzea.
- > Inklusioa bermatzea.
- > Ikasleen ongizate emozionala bultzatzea.
- > Eleaniztasuna sustatzea.
- > Apustu argia egitea diziplinartekotasunean oinarritutako proposamen didaktikoen alde.

(Dekretu Berria teoriatik praktikara liburutik aterea, Antúñez eta Torre, 2022).



Gainera, 77/2023 dekretu berrian jasotako erronkak nabarmendu nahi ditugu, berriz ere oso lotuta baitaude Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren nazioarteko esparruarekin.

- > **Jarrera arduratsua garatzea**, ingurumenaren degradazioaren kontzientzia hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arrazioen ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.
- > **Euskararen erabilera eta euskal kulturarekiko jakin-mina garatzea** guztion ondasunean duen eragina baloratzea.
- > **Kontsumo arduratsuekin** lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duen eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketan aurrean kontrol soziala egitea.
- > **Bizi-ohitura osasungarriak garatzea**, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.
- > **Sentsibilitatea** lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- > **Gatazkak** gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa **ulertzea**, modu baketsuan konpondu beharrekoak.
- > Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu **kritikoan** aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.
- > **Ziurgabetasuna**, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa **onartzea**, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- > Gizarte ireki eta aldakorretan **lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea**, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.
- > **Proiektu kolektibo** baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.
- > **Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko** aukera emango dioten trebetasunak garatzea, eza-gutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

4

● IKASKUNTZA-
EGOERAK, ERRONKA
SOZIALAK,
KULTURALAK,
INGURUMENekoAK
ETA EKONOMIKOAK
LANTZEKO TRESNA
GISA





Erronka horiei erantzuteko, curriculum-egitura berriak tresna berri bat du funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak eskuratzeko aukera emango duten proposamen pedagogikoak egiteko: **ikaskuntza-egoerak**.

Tresna berri horren bidez, ikasleengandik hurbilago dauden testuinguruetan aplikatu nahi dira ikaskuntzak, konpetentziak eskuratzen laguntzeko. Hala, ikaskuntza-egoerak tresna baliagarri bihurtuko dira ikasleengan hausnarketak, ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak garatzeko, erronka sozialei, ingurumenekoei eta ekonomikoei ikuspegi jasangarri eta inklusibotik aurre egin ahal izateko.

Era berean, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioekin bat etorriz, ikaskuntza-egoerek aukera ematen dute bizitza osoan zehar ikasteko oinarriak ezartzeko, prozesu pedagogiko malgu eta irisgarrien bidez, betiere ikasleen beharretara eta testuingurura egokituta.

Dokumentu honetan, lehen aipatu dugun bezala, tresnak eta baliabideak eskaintzen dira irakasleek beren ikaskuntza-egoerak sor ditzaten Garapen Jasangarrirako Hezkuntzan oinarrituta. Hala ere, **kontuan izan behar dugu ikasgelan agertzen zaizkigun premia, errealitate, kezka eta testuinguru desberdinetatik sortuko direla ikaskuntza-egoerak**. Beraz, norberaren ikaskuntza-egoera eraikitzeke prozesuaren parte izango da abiapuntua eta, ondorioz, arazo-egoera. Aurrerago, “ereduzko” saioak proposatuko ditugu, eta haiek hartu ahal izango dira oinarritzat ikaskuntza-egoeraren zirriborroa egiteko.

“Ikaskuntza-egoera berriak esparru zabalago gisa interpretatu behar ditugu, non ikasleak lotzen dituen arazoa abiapuntu izango baita gainerako irakaskuntza-ikaskuntza prozesua edo proposamen didaktikoa bideratzeko”

(Antúñez, 2022)



5.

“ETORKIZUNAK
BERRIRUDIKATZEN:
ALDAKETARAKO
HEZKUNTZA-
ESPERIENTZIAK”

GARAPEN
JASANGARRIA
IKASKUNTZA-
EGOEREN BIDEZ
LANTZEKO
PROPOSAMENAK

Nola sortu Garapen Jasangarrirako Hezkuntzan oinarritutako ikaskuntza-egoerak? Ondoren, jarraibide batzuk emango dizkizuegu ikaskuntza-egoera bat egituratzen hasteko.

Dokumentuaren amaieran txantilo bat aurkituko duzu zeure proposamenak antolatu ahal izateko.

Ekin diezaiogun!



5.1. PROGRAMATZEN HASTEN

» **IDENTIFIKA ITZAZU** zure ikasgelako **testuingurua**, zure ikasleen **beharrak**, **kezkak** eta aldez aurreko **esperientziak**. Ez ahaztu interes horietatik sortuko direla ikaskuntza-egoerak, eta ikasleak direla protagonistak, gero bizitzarako gaitasunak garatzeko (transferigarritasuna).

Ez ahaztu gainerako irakasle-taldearekin koordinatzea eta ikaskuntza-esparruak sortzea, irakaskuntza integrala eta sistemikoa eman ahal izateko. Adibidez, eremu soziolinguistikoari hel diezaiokezu Gaztelania eta Ingurunearen ezagutza irakasgaiekin, edo loturak sor ditzakezu arte-hezkuntzaren eta matematikaren artean. Horixe da, zalantzarik gabe, egungo legegidiaren ikuspegi berria: jakintzak konektatzea eta modu kohesionatuan lan egitea.

Adibidez: eskolako lehen egunetan postontzi batean sar ditzakezu interesatzen zaizkien gaiak edo bizi diren errealitateari buruz dituzten galderak. Egoeraren AMIA azterketa egin dezakezue, bizipenak partekatu eta ikerketa-gaiak proposatu.

GARRANTZITSUA: Ikaskuntza-egoeraren esparrua edo ikuspegia:

1. Testuingurua: pertsonala, soziala, akademikoa, dagoen ingurunea deskribatzen duena.
2. Abiapuntu gisa baliagarria den problema, erronka, desafioa edo galdera: erantzuna edo irtenbidea eman behar zaion testuingurutik sortu dena.
3. Espero den produktua zehaztuko duen amaierako zeregina.

5.2. CURRICULUMAREN GARAPENA

Agian atalik aspergarriena da, baina... horretarako gaude gu hemen! Puntuz puntu aukeratu-ko dugu zer eta nola lan egin nahi dugun.

HELBURUAK

Gaia argi dugunean, helburuak zehaztu behar ditugu: Alde batetik, **etapako helburuak** (jarrera azalduko dizkizuegu) eta, bestetik, **ikaskuntza-helburuak** (irakasle bakoitzak proposatu beharko ditu ebaluazio-irizpideak, konpetentzia espezifikoak eta lorpen-adierazleak kontuan hartuta, horiek erreferentzia gisa eduki ahal izateko).

» OINARRIZKO HEZKUNTZAREN HELBURUAK (77/2023 dekretua)

Aukeratzeko lana erraztu dizugu, jasangarritasunarekin lotura handiena dutenak azpimarratu baititugu. Horietatik, proposatutako egoera bakoitzean 2-3 lantzea gomendatzen dugu (betiere haien iraupena eta konplexutasuna kontuan hartuta).

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
X	X	X	X	X		X			X		X		X

- A)** Beren **betebeharrak** ulertzea eta arduraz hartzea, beren **eskubideak** gainerakoekiko errespetuan ezagutu eta erabiltzea, pertsonen eta taldeen arteko tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzeko, elkarrizketan aritzea eta, hala, giza eskubideak finkatzeko gizarte plural baten balio komun gisa, eta herritartasun demokratikoa baliatzeko prestatzea.
- B)** **Nork bere burua erregulatzeko, ikasteko eta bakarka nahiz taldean lan egiteko ohiturak** garatzea eta finkatzea, ikasketak eraginkortasunez egiteko beharrezkoa den baldintza gisa eta norbera garatzeko bitarteko gisa.
- C)** **Genero-berdintasuna baloratzea eta sexu-, genero-, etnia-, arraza-aniztasuna edo gaitasunen arloko aniztasuna errespetatzea.** Gizonen eta emakumeen arteko edono-

lako diskriminazioa dakarten estereotipoak errefusatzeko. Sexu- eta ugalketa-eskubi-deak ezagutzea eta pertsona oro errespetatuz eta norbera zainduz baliatzea.

- D)** Nortasunaren esparru guztietan eta gainerakoekiko harremanetan **gaitasun afektiboak** indartzea, **gatazkak modu baketsuan konpontzea eta indarkeria** –bereziki, indarkeria matxista eta indarkeria LGBTifobikoa–, edonolako aurreiritziak eta portaera sexistak **baztertzea**.
- E)** **Informazio-iturriak erabiltzeko** oinarrizko trebetasunak garatzea, ezagutza berriak zentzu kritikoz lortze aldera. Oinarrizko konpetentzia teknologikoak garatzea eta haien funtzionamenduari eta erabilerari buruzko gogoeta etikoan aurrera egitea.
- F)** Ezagutza zientifikoa zenbait diziplinatan egituratzen den jakintza integratu gisa hartzea, eta ezagutzaren eta esperientziaren arloetako arazoak identifikatu eta konpontzeko metodoak ezagutzea eta aplikatzea..
- G)** **Beren buruaren gaineko konfiantza**, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta espiritu ekintzailea garatzea, baita ikasten, planifikatzen, erabakiak hartzen eta erantzukizunak beren gain hartzen ikasteko gaitasuna ere.
- H)** **Euskaraz eta gaztelaniaz** zuzentasunez ulertzea eta adieraztea, ahoz eta idatziz, eta testu eta mezu konplexuak sortzeko gai izatea.
- I)** **Atzerriko hizkuntza** batean edo gehiagotan egoki ulertzea eta adieraztea.
- J)** Norberaren **kulturaren eta historiaren** eta euskal kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak ezagutu, baloratu eta errespetatzea, baita historia orokorra/unibertsala eta ondare artistikoa eta kulturala ere.
- K)** Norberaren eta gainerakoen **gorputzaren** funtzionamendua ezagutzea eta onartzea, **desberdintasunak errespetatzea**, gorputzaren zaintza- eta osasun-ohiturak finkatzea eta ikasleen ohituretan heziketa fisikoa eta kirol-praktika txertatzea, norberaren eta gizaratearen garapena errazte aldera. Sexualitatearen giza dimentsioa ezagutzea eta baloratzea, eta haren aniztasuna.
- L)** **Modu kritikoan baloratzea** osasunarekin, kontsumoarekin, zaintzarekin, enpatiarekin eta izaki bizidunenganako (animaliak barne) eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotzen diren **gizarte-ohiturak**, eta horiek kontserbatzen eta hobetzen laguntzea..
- M)** Arte-sorkuntza estimatzea eta arte-adierazpenen hizkuntza ulertzea, zenbait adierazpide eta irudikabide erabiliz.
- N)** Gizateriak dituen eta **garapen jasangarrirako helburuetan** zehazten diren arazo nagusiez jabetzea.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Konpetentziak dira, inolako zalantzarik gabe, ikasleak irteera-proflera iristeko ardatz nagusia. Funtsezkoa da arlo bakoitzean **konpetentzia espezifikoak** hautatzea, curriculumaren garapen egokia ezarri ahal izateko. Konpetentzia espezifikoak honela formulatzen dira: **ZER, NOLA** eta **ZERTARAKO** (azaldu diren etapa-helburuen zehaztapena izanik – arloko helburuen funtzioa betez). Horiekin batera, deskribatzaile operatibo batzuk egongo dira (funtsezko konpetentziekin lotuta dauden kodeak dira, eta oinarrizko jakintza guztiak lantzen laguntzen dute). Une hau konplexua da garapen jasangarrian oinarritutako ikaskuntza-egoerak sortzeko bidean; horregatik, lana erraztu dizuegu, gaiarekin lotuta dauden arlo bakoitzeko konpetentzia espezifikoak hautatuta.

GARRANTZITSUA

Konpetentzia espezifiko bakoitzaren barruan item nagusiak azpimarratu (--- / ---) ditugu, jakintzekiko lotura errazago egin ahal izateko.



* [Puedes consultar el Decreto 77/2023 y sus anexos aquí](#)

» LEHEN HEZKUNTZA

Ingurune naturalaren, sozialaren eta kulturalaren ezagutza

- 1. konpetentzia** Informazioa bilatzea eta hautatzea bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, bai banaka bai taldean, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, teknologia digitalak modu seguruan eta iraunkorrean erabiltzeko ohiturak hartuz, informazio hori ezagutza bihurtzeko eta modu antolatuan eta sortzailean komunikatzeko. HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, KE3, KPSII5.
- 4. konpetentzia** Norberaren gorputza, norberaren eta besteen emozio eta sentimenduak ezagutzea eta horien kontzientzia hartzea, eta ezagutza zientifikoan oinarritutako ohitura osasungarriak garatzea, ongizate fisikoa, emozionala eta soziala lortzeko. HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, KE3, STEM5, KD2, KD3, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK3, HK4, EK1.
- 5. konpetentzia** Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez. HKK1, HKK3, CP1, CP2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, KD1, KPSII4, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2.
- 6. konpetentzia** Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarritz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM2, STEM5, KD2, KD3, KD5, KPSII4, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK1.
- 7. konpetentzia** Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitate-, aldiberekotasun- eta ondorengotza-erlazioak aztertuta, elementuen eta gertaeren arteko harremanak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD4, KD5, KPSII4, HK1, HK3, HK2, KAKK1.

8. kompetentzia Aniztasuna eta genero-berdintasuna onartzea eta baloratzea, pertsona guztiekiko enpatia eta errespetua erakutsita, gai etikoei buruz modu kritikikoan hausnartuta, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate indibidual eta kolektiboan laguntzeko eta Europar bizikidetzaren baketsua eta errespetuzkoa lortzeko HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2.

9. kompetentzia Gizarte-ingurunean eraginkortasunez eta modu eraikitzailean parte hartzea, Adierazpen Unibertsalek eta Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legeriak bultzatutako printzipio demokratikoez ezartzen dituzten balioak errespetatuz, erakunde demokratikoez bakea eta segurtasuna mantentzeko duten funtzioa baloratu, errespetuzko harremanak sortzeko eta gatazken kudeaketa baketsua eta elkarriketa bidezkoa sustatzeko HKK1, HKK5, KE3, KE1, KE2, KE3, KPSII1, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

Arte-hezkuntza

1. kompetentzia Kultura, garai eta estilo desberdinetako arte-proposamenak ezagutzea, harrera aktiboaren bidez eta tresna digitalak erabiliz, jakin-mina, sentsibilitatea, errespetua eta pentsamendu kritikoa garatzeko. STEM1, KD1, KPSII3, HK1, EK2, KAKK1, KAKK2.

Euskara eta literatura eta gaztelania eta literatura

1. kompetentzia EAEko eta inguruko eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna aitortzea eta baloratzea, ikasleen eta haien inguruko hizkuntzen identifikaziotik eta interrelaziotik abiatuta, betiere hizkuntza-estereotipoak eta -urreiritziak baztertzeko, hizkuntza guztiekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa izateko eta euskararen ohiko erabilerarekiko portaera asertiboak sustatzeko. HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.

6. kompetentzia Bi iturritatik edo gehiagotik datorren informazioa modu planifikatuan bilatzea, hautatzea eta egiaztatzea, informazioaren fidagarritasuna ebaluatuz eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak ezagutzeko, ezagutza eraldatzeko eta modu sortzailean jakinarazteko, ikuspuntu pertsonaletik eta jabetza intelektuala errespetatuz. CCL3, CD1, CD2, CD3, CD4, CPSAA5, CC2, CE3.

10. kompetentzia Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ezdiskriminatzailea eta inklusiboa erabiliz eta hitzaren bidez botere-abusuak atzemanaz eta baztertzeko, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa bultzatzeko. HKK1, HKK5, KE3, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, HK3.

Heziketa fisikoa

1. kompetentzia Jarduera fisikoak osasun globalean dituen ondorioak ezagutzea, emozioen eta gatazken kudeaketa landuz, osasun fisikoa, emozionala eta soziala indartzeko. HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.

4. kompetentzia Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako kooperazio-egoera soziomotorretan moldatzea, autorregulazio-prozesuak jarrera enpatiko eta inklusiboz garatuz, gizarte-trebetasunak baliatuz eta kooperazioko eta errespetuzko jarrerak hartuz, parte hartzen den guneetan gizarte-bizikidetzaren eta konpromiso etikoa lortzen laguntzeko. HKK5, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3 eta KAKK1.

Balioetan hezteko (lehen hezkuntzako 6. maila)

2. kompetentzia Arau eta balio zibiko eta etikoei buruz gogoeta egitea eta argudiatzea, bizitza indibidual eta kolektiborako duten garrantzia antzemanaz, eta horiek modu eraginkorrean eta argudiatuan aplikatuz hainbat testuingurutan, bizikidetzaren baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzeko. HKK1, HKK5, CP3, KD3, KPSII3, KPSII4, HK1, HK2, HK3, EK1, KAKK1.

3. kompetentzia Gizabanakoaren, gizartearen eta naturaren arteko harreman sistemikoak aztertzea, arazo ekosozialei buruzko ezagutzaren eta gogoetaren bidez, pertsonetikiko eta planetarekiko errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin bat datozen balio eta praktikekin aktiboki konprometitzeko. HKK2, HKK5, CP1, CP2, STEM5, KD1, KD4, KD5, KPSII2, HK2, HK3, HK4, EK1.

5. kompetentzia Autoestimua eta ingurunearekiko enpatia garatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak identifikatuz, kudeatuz eta adieraziz, eta besteak beste ezagututa eta baloratu, norberaren, bestearen eta naturako gainerakoen

zaintzan eta estimuan oinarritutako jarrera hartzeko. HKK1, HKK5, KPSII1, KPSII2, KPSII3, KPSII4, HK2, HK3, HK4, EK3.

Matematika

- 2. konpetentzia** Egoera problematizatuak ebaztea, hainbat teknika, estrategia eta arrazoi-tzeko modu aplikatuz, **jarduteko zenbait modu** aztertze, soluzioak lortzeko eta ikuspuntu formaletik eta planteatutako testuinguruari loturik baliozkoak direla ziurtatzeko. HKK1, HKK3, STEM1, STEM2, KPSII5, EK2, EK3, KAKK4.
- 8. konpetentzia** Gizarte-trebetasunak garatzea, besteen emozioak, esperientziak eta aniztasunaren balioa aitortuz eta errespetatuz, esleitutako rola dituzten lantalde heterogeneoetan aktiboki parte hartuz, matematikako ikasle gisa nortasun positiboa eraikitze, **ongizate pertsonala** sustatzeko eta **harreman osasungarriak** sortzeko. HKK1, HKK2, HKK5, CP3, STEM3, STEM5, STEM6, KPSII1, KPSII3, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK2, EK3.



» BIGARREN HEZKUNTZA

Balio zibiko eta etikoak

- 2. konpetentzia** Ingurune analogiko eta digitaletan jardutea eta elkarreragitea, errespetuzko elkarrizketa baterako beharrezkoak diren arau eta balioekin bat etorriz, bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta guztion onerako modu aktiboan konprometitua sustatzeko duten garrantziaren aitortzen oinarritutik abiatuz, **arau eta balio zibiko eta etikoei buruz hausnartzeko**, bizitza komunitarioa arautzeko eta hainbat testuingurutan modu eraginkorren eta justifikatuen aplikatzeko. HKK5, KD3, KD5, HK1, HK2, HK3, HK4, KAKK1.
- 3. konpetentzia** Giza jardueren izaera interkonektatua, inter eta ekodependentea ulertzea, **arazo ekosozial garrantzitsuak** identifikatuz eta **aztertuz**, **bizimodu jasangarriak** lortzearekin etikoki konprometitu dauden ohiturak eta jarrerak sustatzeko. STEM5, KPSII2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1.
- 4. konpetentzia** Norberaren eta ingurunearen estimu egokia erakustea, norberaren eta besteen sentimenduak eta emozioak ezagutzeko eta baloratuz, **besteekiko eta naturarekiko jarrera enpatikoa**, asertiboa, erresiliente eta arduratsua lortzeko. HKK1, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK1, HK3, KAKK3.

Ongizate fisiko eta emozionala

- 2. konpetentzia** Motrizitate-jardueran **emozioak** gero eta autonomia handiagoz kudeatzea, kontzientzia eta erregulazio emozionalaren lanaren bidez, jarduerak fisikoak gozatzeko, **norberaren ongizatean laguntzeko eta estresa murrizteko**. HKK1, HKK5, STEM5, KPSII1 eta KPSII2.
- 3. konpetentzia** Egoera soziomotorren bidez **beste pertsona batzuekin harreman onak** izateko gaitasuna garatzea, taldearen giro positiboa sustatuz, jarduerak fisikoak gozatzeko eta **gizarte-osasuna lortzen eta estresa murrizten laguntzeko**. HKK1, HKK5, STEM5, KPSII2, HL2 eta HK3.

Teknologiako eta digitalizazioko hastapenak (DBH 1)

- 1. kompetentzia** Erronka teknologiko errazei autonomiaz eta jarrera sortzailez **heltzea**, diziplinarteko ezagutzak aplikatuz eta modu antolatuan eta kooperatiboan lan eginez, haietarako **irtenbideak** eraginkortasunez diseinatzeko, planifikatzeko eta garatzeko. : HKK1, STEM1, STEM3, KD3, KPSII3, KPSII5, EK1, EK3, KAKK3 eta KAKK4.
- 6. kompetentzia** Trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea, norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak ezagutuz, esleitutako rola izango dituzten lantalde heterogeneoetan aktiboki parte hartuz, teknologiako eta digitalizazioko ikasle gisa identitate positiboa eraikitzeke, **ongizate pertsonala sustatzeko** eta ikasleek beren ikaskuntza hobetzea ahalbidetuko dituzten **harreman osasungarriak sortzeko**. KE3, STEM3, STEM5, KD3, KPSII1, KPSII3, KPSII4, HK2, HK3, EK2, EK3.
- **Problema ebazteko prozesua**: problema tekniko bat identifikatzen eta problema hori modu konstruktiboan ebazten hasteko aukera emango duten trebetasun eta metodoen garapena jorratzen du.
 - **Ideen komunikazioa eta hedapena**: kultura digitalaren berezko dira, eta tresna digitalen bidezko interakzio pertsonalean trebetasunak garatzea eskatzen dute.
 - **Pentsamendu konputazionala**: algoritmiaren oinarriak biltzen ditu, blokekako programazio-lengoaiak erabiliz algoritmo sinpleak diseinatzeko eta garatzeko.
 - **Ikaste-ingurune pertsonala digitalizatzea**: ikasleek erabili ohi dituzten ekipoak eta aplikazioak konfiguratzera, doitzera eta mantentzera bideratuta dago, bizitza osoko ikaskuntza errazteko.

Komunitatearentzako ikaskuntza-zerbitzuak

Komunitatean ikasteko zerbitzua, helburu didaktikoak:

1. Oinarrizko 8 kompetentziak indartzea, ikasleen IRTEERA-PROFILARI begira.
2. Hezkuntza-komunitatea kohesionatzea, tokiko eragileak barne.
3. Kompetentziak irakasteko eta ikasteko ideian sakontzea, ikasleen autonomia indartuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Funtsezkoa da **kompetentzia espezifikoak beti lotzea** arlo bakoitzeko **oinarrizko jakintza-multzoekin**. Lotura hori egiten den taula-proposamena aurkeztuko dugu ondoren, betiere Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren esparrua kontuan hartuta.

LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA (5. ETA 6. MAILAK)

BIGARREN HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA (1. ETA 2. MAILAK)

BIGARREN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA (3. ETA 4. MAILAK)

Oinarri horretatik abiatuta, ebaluatu eta kalifikatu nahi dituen EBALUAZIO-IRIZPIDEAK (curriculumean aurki ditzake) eta lorpen-adierazleak (helburuen eta irizpideen arabera sortuak) gehitu beharko ditu irakasleak.

LEHEN HEZKUNTZA		
ARLOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	OINARRIZKO JAKINTZA-MULTZOA
INGURUNEAREN EZAGUTZA	1	B MULTZOA
	4	A MULTZOA
	5	C MULTZOA
	7	C MULTZOA
	8	C MULTZOA
	9	C MULTZOA
BALIOETAN HEZTEA (LH 6)	2	B MULTZOA
	3	C MULTZOA
	5	E MULTZOA
GAZTELANIA ETA LITERATURA ETA EUSKARA ETA LITERATURA	1	A MULTZOA
	6	B MULTZOA
	10	D MULTZOA
MATEMATIKA	2	F MULTZOA
	8	F MULTZOA
ARTE HEZKUNTZA	1	D MULTZOA
HEZIKETA FISIKOA	1	G MULTZOA
	4	C MULTZOA

BIGARREN HEZKUNTZA		
IRAKASGAIA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	OINARRIZKO JAKINTZA-MULTZOA
BALIOAK	2	B MULTZOA
	3	B MULTZOA
	4	A MULTZOA
ONGIZATEA	2	C MULTZOA
	3	C MULTZOA
DIGITALIZAZIOA	1	A MULTZOA
	6	E MULTZOA

Eta nola egingo dugu?

Metodologiaren bidez

PRINTZIPIO PEDAGOGIKOAK

» Printzipio pedagogikoak 6. artikulua. (77/2023 dekretutik hartua).

1. Ikastetxeek, **inklusioaren eta ekitatearen** printzipioa aplikatzen dela bermatzeko, ikasleen aniztasuna kontuan hartuta prestatu behar dituzte etapa honetako ikasle guztientzako proposamen pedagogikoak. Era berean, ikasleen ikasteko askotariko erritmoak kontuan hartuko dituzten, beren kabuz ikasteko gaitasuna bultzatuko duten eta talde-lana sustatuko duten metodoak ezarri behar dituzte.
2. Hezkuntza-arloak lan egin behar du modu progresiboan garatzeko eta finkatzeko ikasle bakoitzari Oinarrizko Hezkuntza amaitzeko irteera-profilean aurreikusitako **funtzeko konpetentziak behar bezala eskuratzeko** bidea emango dioten oinarriak, betiere ikasle bakoitzaren heltze-prozesua eta etapa honetarako espero diren jardun-mailak kontuan hartuta. Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, ikasleek gai izan beharko lukete **garapen jasangarrirako helburuei** begira aldaketak eragiteko eta erronkei aurre egiteko.
3. Honako hauek bermatu behar dira: **hezkuntza- eta hizkuntza-inklusioa**; arreta pertsonalizatua; ikasleek ikastetxeko egituretan eta elkarbizitzan parte hartzea; ikasteko zailtasun espezifikoak eta gaitasun handiko ikasleak goiz hautematea, eta laguntzeko eta malgutzeko mekanismoak, alternatiba metodologikoak eta beharrezkoak diren beste neurri batzuk abian jartzea. Hezkuntza-inklusioa bermatzeko hartzen diren antolaketa-, metodologia- eta curriculum-neurriak **Ikas-kuntzarako Diseinu Unibertsalaren** printzipioei jarraitu behar diete, pertsona guztiek **hezkuntza-arrakasta** lortu dezaten.
4. Konpetentzia-curriculumak **ikaskuntza sakon eta funtzional** batera bideratuta dago, ikasitakoak hartara askotariko inguruneetan balio izateko eta erabiltzeko, denboran irauteko eta orotariko egoeretan baliatu eta problemak konpontzeko.
5. Oinarrizko Hezkuntzan, arreta berezia eman behar zaio Oinarrizko Hezkuntza amaitzean ikasleek bete behar duten **irteera-profilean** ezarritako konpetentziak lortzeko eta garatzeko, eta ahozko eta idatzizko adierazpide zuzena sustatuko da, baita matematikaren erabilera ere. Irakurtzeko ohitura sustatze aldera, ikasgai guztien irakaskuntzan denbora hartu behar da era bateko eta besteko testu motak irakurtzea dakarten jardueretarako.
6. Ikasitakoa barneratzen laguntzeko, beharrezkoa da eskola-ordutegian tarte bat hartzea **zeharkako proiektu adierazgarriak eta garrantzitsuak** egiteko eta arazoak elkarlanean konpontzeko, ikasleen autoestimua, autonomia, gogoeta eta erantzukizuna indartu daitezten.

7. **Arlo, ikasgai edo eremu guztietan, zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasunerako hezkuntza, sentsibilitate estetikoa eta sorkuntza artistikoa, jasangarritasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza, elkarrenganako errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarrera eta portaeren prebentzioa, eta berdinaren arteko kooperazioa.**
8. Lehenetsunez jotzen da haurren eta gazteen ongizate emozionalari arreta berezia jartzea. Ondo, harmonian eta lasai sentitzearen esperientzia subjektiboa eta zailtasunei aurre egin eta ondo gainditu ahal izateko gogobetetasun-esperientzia sartzen dira hor. Bereziki, arreta jarri behar zaio indarkeria motaren bat –indarkeria matxista, LGBTIfobikoa edo arrazista edo dibertsitate-gaiei lotua– jasaten denean sortzen diren ondorez-egoerak identifikatzeari.
9. Hizkuntza, informaziorako eta ezagutzaren eraikuntzarako atea izanik, ikasteko prozesuaren erdigunean dago. Hizkuntzen ikaskuntzari konpetentzia-ikuspegi globalizatu batetik heltzen zaio, arreta hizkuntzen ikaskuntza integratuan eta hizkuntzen eta jakintzen ikaskuntza integratuan jartzen duten ikuspegi metodologikoen bidez.
10. Hizkuntza ofizialak laguntza gisa bakarrik erabiliko dira atzerriko hizkuntzak ikasteko prozesuan. Prozesu horretan, ulermena, adierazpena eta ahozko interakzioa lehenetsiko dira.
11. Konpetentzien araberako pedagogiaren ikuspegiaren aukera metodologikoen barruan, garrantzitsua da aintzat hartzea konpetentziak osorik garatzea, egoera errealean oinarritutako benetako jardueren bidez lan egitea, eta abar.
12. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ezarriko du zer baldintza bete behar diren kualifikazio egokia duten irakasleek ikasle talde berari derrigorrezko bigarren etapako lehen mailatan ikasgai bat baino gehiago emateko.
13. Ebaluazioa globala, jarraitua eta hezigarria da Lehen Hezkuntzan, eta jarraitua, hezigarria eta integratzailea Bigarren Hezkuntzan. Halaber, ebaluazioa kolaboratiboa eta parte hartzekoa da. Hori dela eta, ikastetxeek eta irakasle-talde ebaluatzaileek bitarteko eta estrategia egokiak jarri behar dituzte ikasleak eta ikasle adingabeen gurasoak edo legezko tutoreak ebaluazioari lotutako prozesuetan integra daitezten eta horietan aktiboki kolaboratu eta parte har dezaten.
14. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak behar diren neurriak sustatuko ditu ikasleen tutoretza pertsonala eta hezkuntza-orientazioa eta orientazio psikopedagogikoa eta profesionala funtsezko elementuak izan daitezten Oinarrizko Hezkuntzaren etaparen antolamenduan.

METODOLOGIA


» Metodo pedagogikoak



» Metodologiak




» Estrategia didaktikoak




» Baliabideak eta materialak

Garapen jasangarriari buruzko baliabide eta material didaktiko ugari daude. [Factoría 4.7](#) plataforman, GJHei lotutako hainbat baliabide aurki ditzakegu, guztiz doakoak eta eskuragarri, hainbat testuingurutan lan egiteko.



» Taldekatze-motak



Talde handia edo ikasgelako taldea



Bakarka



Talde kooperatiboetan

» Aniztasunari arreta

IKASKUNTZARAKO DISEINU UNIBERTSALAREN PRINTZIBIOAK ETA JARRAIBIDEAK

- > Funtsezkoa da ikasgelan aniztasuna aintzat hartzea, gure ikasleek garapen integrala lor dezaten. [Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalak](#) ehunka baliabide eskaintzen dizkigu ingurune ezgaitzaileei erantzuteko eta ikasle bakoitzari behar duena emateko planteatutako helburuetara irits dadin (maila anitzeko jarduerak eskaintzea, maila kognitiboetara eta taxonomiei erantzuteko).



5.3 JARDUEREN SEKUENTZIA

Eskema honen bidez, ereduak saio batzuk proposatuko dizkizuegu zuen ikaskuntza-egoeren konpetentziak lantzeko sekuentziarako. Gogoan izan sekuentzia hori ikasleen testuinguruaren eta beharren arabera izango dela beti, eta, beraz, irakasleak bere ikasgelara egokitu beharko du.

Gure proposamena **hiru fasetan** banatua dago, Garapen Jasangarriaren lehentasuneko **5 esparruei** lotuta, bost "P-ak" deiturikoak ingelesezko siglen arabera (pertsonak, planeta, bakea, oparotasuna eta aliantzak).

HASIERAKO FASEA: ANTOLAKETA, MOTIBAZIOA, AURKEZPENA ETA METAKOGNIZIOA

"PERTSONAK" esparrua



- Ereduzko saioa:** hurbilketa bat egingo dugu 2030 Agendara eta Garapen Jasangarrirako Helburuetara, [ikus-entzunezkoen](#) proiektioaren bidez.
 - Aldez aurretik, ikasleei galde diezaiekegu zein diren munduan identifikatzen dituzten arazo larrienak eta arazo horiek nola konponduko lituzketen. Gauza bera planteatu dezakegu toki-mailan. Hala, irakasleak ezagutu ahal izango ditu ikasleek bizi garen mundu honi buruz aldez aurretik dituzten kezkak. Haien erantzunak bereziki baliagarriak izan daitezke gure ikaskuntza-egoeraren abiapuntua ezartzeko.
 - GJHei buruzko hainbat bideo ikusiko ditugu ikasgelan, orokorrak edo helburu espezifikokoago bati lotuak izan daitezke.

- Indar-ideiak nabarmendu eta errepatatuko ditugu: garapen jasangarriaren dimentsioen orekaren, mundu hobea eraikitzeko giza gaitasunaren, berdintasunaren eta ekitatearen... arteko garrantzia.

Interesgarria da eskolan lantzen ari diren ideia zehatzak azaltzea, ikasleek beren errealitatek urrun dagoen zerbait dela pentsa ez dezaten. Esate baterako, genero-berdintasunari buruzko 5. GJHaz hitz egitean, Martxoak 8ren esparruan eskolan egiten diren ekintzak aipa ditzakegu; edo kontsumo arduratsuari buruzko 12. GJHaz hitz egitean, ikasleei galde diezaiekegu ea ezagutzen duten beren auzoetan egiten den tokiko ekimenen bat, hala nola elikagaien saski ekologikoa.

GARAPEN-FASEA: IKERKETA, SINTESIA, HAUSNARKETA, BALORAZIOA ETA HOBEKUNTZAK

BAKEA, PLANETA ETA OPAROTASUNA esparruak



OPAROTASUNA



PLANETA



BAKEA

2. Erreduzko saioa: bigarren fase honetan, abiapuntuan identifikatu dugun gaian sakonduko dugu. Saio honetan, bereziki, garapen jasangarriari buruzko eztabaida eta hausnarketa izango ditugu ardatz, bai eta gizarte jasangarriagoa lortzeko dugun jarduteko gaitasuna ere.

- [Erakusketa birtualeko](#) irudiak erabilia, haien inguruan zer interpretazio egiten ditugun hausnar dezakegu: Zer interpretazio egiten dugu irudiaren inguruan? Zer esan nahi digu artistak bere obrarekin? Zein GJHrekin lotuko dugu irudia?

Ariketa honetan interesgarria da irudimenari hegan egiten uztea eta ikasle bakoitzak bere interpretazioa egitea obraren inguruan. Gero, bateratu ahal izango da ikuspegiak eztabaidatzeko.

- Taldeka hausnartzea: Zer egin dezakegu pertsonok helburu horiek lortzeko?

Garrantzitsua da errealistak izatea eta egunerokoaren adibide errazak ematea. Adibidez: etxean eta eskolan plastikoen kontsumoa murriztea, eguneroko zereginetan ura ez xahutzea, hala nola hortzak garbitzean, garraio publikoaren erabilera sustatzea, eskolako bizikidetzara-arauek errespetatzea...

3. Erreduzko saioa: Ekintzara pasatzeko garaia da! Horretarako, "challenge" formatua proposatzen dugu, hau da, jasangarritasunaren ikuspegitik ikasleak aktibatzen lagun dezaketenen erronkak aurkeztea. Zenbait adibide:

- [2030 challenge](#): jolas honek garapen jasangarria lortzeko ideiak ematen ditu, hausnarketa bultzatzen duten hainbat hezkuntza-erronka planteatuz, modu entretenigarri eta hezitzailean.
- [Ondare up!](#) 'La retadora': hainbat bideo dira, eta kirolari, berrikuntzari, gastronomiarri, arte plastikoei eta abarri buruzko erronka kulturalak dituzte.

4. Erreduzko saioa: Laugarren saio honetan, bigarren fasean garatutako guztia biltzea proposatzen dugu, proposamen zehatzak egiteko azken fasean landuko den azken produktuari begira.

Aukera gisa, proposamenak taldeka egin ditzakegu, eta, ondoren, guztien artean adostu azken fasean zein egingo den aukeratzeko.

Azken produktuen adibide batzuk:

- > Landu dugun informazioarekin poster/infografia/triptiko/laburpen bat sortzea eta zabaltzea
- > Blog bat sortzea informazio-bideoak zintzilikatzeko
- > Galdetegi bat sortzea, ondoren gertuko errealitatea aztertzen jarraitzeko
- > Material jasangarriekin sortutako produktuen erakusketa
- > Eztabaidak, solasaldiak hezkuntza-komunitatearekin batera
- > Landu ditugun egoeren irudikapen dramatikoak
- > Eskolan mural bat sortzea
- > Ikasketa-egoerari buruzko datu garrantzitsuak biltzen dituen podcast bat sortzea
- > Liburu digitala, audioliburu edo power point-a, hedatzeko informazioarekin
- > Frogen porfolioa
- > Maketak, argazki-albuma
- > Gutunak erakundeei


AZKEN FASEA EDO TRANSFERENTZIA-FASEA: AZKEN PRODUKTUA, GOGOETA ETA EBALUAZIOA

Hirugarren eta azken fase honetan, ikaskuntza-egoeraren azken produktua landuko dugu, hau da, hausnarketak eta ikaskuntzak errealiterara eramatea. Fase hau "ALIANZAK" esparruarekin eta 17. GJHrekin lotua dago.



5. **Ereduzko saioa:** Saio honetan pertsona eta erakunde aliatuak bilatuko ditugu proposamenetako batzuk errealitate bihurtzeko.

Hona hemen UN Etxeak euskal eskolekin bultzatutako Garapen Jasangarrirako Hezkuntza lantzeko esperientzia batzuk.



6. **Saioa:** ebaluazioa. Amaitzeko, eskuratutako konpetentziak eta ikaskuntzak ebaluatuko ditugu.

- Betiere, konpetentzia espezifikoetatik datozen ebaluazio irizpideak eta irakasleak sortutako lorpen adierazleak erreferentziatzen hartuta.
- Jarduera bakoitza irizpide eta adierazle batekin lotuko dugu, eta aldi berean, ebaluatzeko eta, nahi izanez gero, kalifikatzeko tresna eta instrumentu bat esleituko diogu.

Joan hemendik eranskinetara

I. eranskina I. txantiloia - Jardueren sekuentzia
II. eranskina II. txantiloia - Ebaluazioa



Cure egitekoa, gizarteko eragile aktibo garen aldetik, espiritu kritikoa, enpatia eta gogoeta zabaltzen jarraitzea da, munduak hobera egin dezan, helburuak lor ditzagun, hobeak izan gaitzen.

Gida honetan hazi hori landutako dugu ureztatzen eta zabaltzen jarrai dezazuen.

Eskerrik asko garapen jasangarrirako hezkuntzari laguntzeagatik.

Andrea eta Eva



B
O
S
T

6.

ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK ETA ERANSKINAK



LEGERIA

- > Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación
- > Real Decreto 157/2022, de 1 de marzo, por el que se establecen la ordenación y las enseñanzas mínimas de la Educación Primaria.
- > Real Decreto 217/2022, de 29 de marzo, por el que se establece la ordenación y las enseñanzas mínimas de la Educación Secundaria Obligatoria.
- > 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

BIBLIOGRAFIA

- > Aberasturi, E.; Guerra, R.; Intxausti, I. y Guzmán, B. (2019) “Medir el impacto de la educación artística en las aulas. Propuesta de una herramienta con indicadores”.
- > Antúñez, A. y Torre, U. (2022). Nuevos decretos de educación de la teoría a la práctica. Autoedición.
- > De la Hoz González, A.: “Patrimonio y educación. Metodologías y buenas prácticas”. UNESCO Etxea, 2021.
- > Eusko Jaurlaritza (2019). EAEko hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023.
- > Eusko Jaurlaritza (2019). Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana. 2019-2022
- > Eusko Jaurlaritza (2020) Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleekin esku hartzea (HLBP). https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/es_def/adjuntos/escuela-inclusiva/propuestas_inclusivas_para_intervencion_con_alumando_con_neae_c.pdf

- > Guerra, R.; Gulín, O.; Teklak. “Gizarte eraldaketarako arte eta kultura arloetako hezkuntza-programen ebaluaziorako adierazleak. Lehen maila”. UNESCO Etxea, 2020.
- > Guzmán, B. (2018): “Arte, Educación y Desarrollo. La Educación artística en el ámbito socio-educativo vasco”. UNESCO Etxea.
- > UNESCO (2017). Educación para los Objetivos de Desarrollo Sostenible: objetivos de aprendizaje. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000252423/PDF/252423spa.pdf.multi>
- > UNESCO (2020). Educación para el desarrollo sostenible: hoja de ruta. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000374896/PDF/374896spa.pdf.multi>
- > UNESCO (2021). Declaración de Berlín sobre la Educación para el Desarrollo Sostenible. <https://en.unesco.org/sites/default/files/esdfor2030-berlin-declaration-es.pdf>
- > UNESCO (2021). Reimaginar juntos nuestros futuros: un nuevo contrato social para la educación. Informe de la comisión internacional sobre los futuros de la educación. https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000379381_spa/PDF/379381spa.pdf.multi
- > UNESCO (2023). La situación actual de la educación para el desarrollo sostenible y la educación para la ciudadanía mundial. https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000381362_spa/PDF/381362spa.pdf.multi

WEBGRAFIA

- > Bizikasigune (2023) <https://bizikasi.euskadi.eus/es/inicio>
- > Curriculumgune (2023): <https://curriculum.gune.euskadi.eus/es/curriculum>
- > Fundación Aquae (2023). Educación artística: <https://www.fundacionaquae.org/wiki/educacion-artistica/>
- > UNESCO (2023) Cultura y educación. <https://www.unesco.org/es/culture-education>

I. ERANSKINA I. TXANTILOIA - JARDUEREN SEKUENTZIA

GARAPEN JASANGARRIAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA-EGOERAREN JUSTIFIKAZIOA:

PROPOSAMENAREN HELBURUA ETA XEDEAK:

ABIAPUNTUA (interesgunea)		EGOERA-ARAZOA	AZKEN ZEREGINA (transferentzia)
CURRICULUMAREN GARAPENA			
ESPARRUA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA DESKRIBATZAILE OPERATIBOAK	OINARRIZKO JAKINTZAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK


1 MULTZOAREN FITXA TEKNIKOA: PERTSONAK			
HASIERAKO FASEA			
ESPAZIOAK	BALIABIDEAK ETA MATERIALAK	TIKAK	TALDEKATZEAK
JADUERAK (eskema)			
ANIZTASUNARI ARRETA EMATEA			
GENERO-IKUSPECIA (HEZKIDETZA)			

2 MULTZOAREN FITXA TEKNIKOA: BAKEA, PLANETA ETA OPAROTASUNA			
GARAPEN FASEA			
ESPAZIOAK	BALIABIDEAK ETA MATERIALAK	TIKAK	TALDEKATZEAK
JADUERAK (eskema)			
ANIZTASUNARI ARRETA EMATEA			
GENERO-IKUSPECIA (HEZKIDETZA)			

3 MULTZOAREN FITXA TEKNIKOA: ALIANTZAK			
AMAIERA FASEA			
ESPAZIOAK	BALIABIDEAK ETA MATERIALAK	TIKAK	TALDEKATZEAK
JADUERAK (eskema)			
ANIZTASUNARI ARRETA EMATEA			
GENERO-IKUSPECIA (HEZKIDETZA)			

II. ERANSKINA II. TXANTILOIA - EBALUAZIOA

FASEA	JARDUERA	TRESNA	INSTRUMENTUA
HASIERA			
GARAPENA			
AMAIERA			



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

un
ETXEA

ASOCIACIÓN
DEL PAÍS VASCO
PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO
EUSKAL HERRIKO
ELKARTEA